

## d) Etengabeko ebaluazioarekin konprometitzea. Berrikuntza eta esperimentazioa

### 1. maila: Oinarrizkoa

Ez du uste prestakuntzarik behar duenik; bere hasierako prestakuntzari nahikoa deritzo irakaskuntza-lana gauzatzeko.

Interes falta du bere praktikari buruz gogoeta egiteari eta irakasleen autoebaluazioetan parte hartzeari dagokionez, baita berrikuntza-jardueretan edo heziketan-programetan parte hartzeari dagokionez ere.

Prestakuntzan ez du behar beste parte hartzen edo parte-hartze pasiboa du, eta soil-soilik hala eskatzen duelako ikastetxeko urteko planak.

Ez dauka interesik beste profesional batzuegandik jardunbide egokiak ikasteko. Are gehiago, batzuetan errespetu gutxi du estrategia metodologiko ezberdinekiko.

### 2. maila: Garatze bidean

Bere jarduketa irakaskuntza-ikaskuntza prozesuko une ezberdinetan erabiltzen du eta berau hobetzeko estrategiak baliatzen ditu.

Autoebaluazio-prozesuetan parte hartzen du beste irakasle batzuekin.

Prestakuntza- eta berrikuntza-jardueretan edo ikastetxeak adostutako programetan parte hartzen du; ez hori bakarrik, horiek garatzen eta gauzatzen ere laguntzen du.

Jardunbide egokiak partekatzen ditu eta beste batzuegandik ikasten du.

Prestakuntza ikasgelan edo jardun profesionalean aplikatua izatera dago bideratuta, irakasleen emaitzak edo ikastetxearen funtzionamendua hobetzeko helburuarekin betiere.

Badaki zer prestakuntza-esparruk ematen dizkion irakaskuntza-kompetentziak hobetzeko tresnak.

### 3. maila: Garatua

Gogoeta sistematikoa egiten du bere irakaskuntza-jardunari buruz: irakaskuntza-ikaskuntza prozesua planifikatzea, ikasgelako esku-hartzea, irakasleen emaitzak eta ebaluazio-estrategiak prestakuntza-ibilbidea planifikatzeko oinarri gisa erabiltzen ditu.

Bere praktikaren eta irakasleen emaitzen analititik prestakuntza-bide berriak antolatu eta sustatzen ditu irakaste-kompetentziak eta emaitzak hobetzeko.

Taldeko prestakuntzari ematen dio lehentasuna. Etengabe bilatzen du ezagutzak eguneratzea (ikasgaiari, pedagogiari eta metodologiari dagozkionak).

Esperimentazio pedagogikoa sustatzen du, betiere ikaskuntzak areagotzeko eta irakasleen motibazioa handitzeko helburuarekin eta gelaren premietara egokituta.

Beste hezitzaile batzuekin lankidetzan egindako prestakuntza-jardueretan parte hartzeaz gain, sustatu egiten ditu jarduera horiek, ikastetxeko irakasle guztien irakaste-kompetentziak hobetzeko.

### 4. maila: Aurreratua

Ikastetxean etengabeko prestakuntza sustatzen du eta bertan parte hartzen du, irakasleen emaitzak eta, oro har, ikastetxearenak hobetzeko.

Ekarpenak egiten ditu prestakuntza horren eraginkortasuna ebaluatu eta, horren arabera, erabakiak hartzeko.

Bere ezagutzak eta esperientzia arrakastatsuak partekatzen ditu. Besteen ezagutzak baloratzen ditu eta haiengandik ikasten du.

Sareetan parte hartzen du. Irakasleen arteko lankidetzak-kanalak sortzeko erraztasunak ematen ditu.

Bere estrategia didaktiko-pedagogikoak etengabeko ikaskuntzaren, ikerketa didaktikoaren eta esperimentazio metodologikoaren bitartez egokitu eta eguneratzen du.